



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO 2024. EKITALDIRAKO OINARRIAK ETA DEIALDIA ONARTZEA.(24- 26D/2024ALOR)

Udalak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.7) artikulua araber, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte, besteak beste, honako eremu hauetan: "Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa". Eskumen horren baitan, Azpeitiko Udalak urteak daramatza etxebizitzak alokatzeko dirulaguntza programa bat bideratuz, bai etxebizitza hutsak mobilizatzeko baita, kolektibo ahulago jakin batzuek alokairuko etxebizitzak eskura ditzaten sustatzeko ere.

Laguntza lerro hau Azpeitiko Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago jaso, Udalbatzak 2023ko otsailaren 7an onartua (X eranskina- dirulaguntza lerroa: Azpeitiko udalerrian etxebizitza alokatzeko laguntzak). Plan Estrategikoak programa honen bidez lortu nahi diren helburuak zehazten ditu. Hala nola, alokairuak sustatuz eta herriko etxebizitza hutsak mobilizatuz Udalak ahulenak diren kolektiboak lagundu nahi ditu.

Hain zuzen, laguntza hauen xedea, biztanleriaren kolektibo desberdinen ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairuaren zati ordaintzen laguntzea da: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun urria edo/eta ezgaitasun absolutua duten pertsonak, bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak, 70 urtetik gorako pertsona eta alargunak, alokairu erregimenean etxebizitza bat dutenak edo 2024ko urriak 15a baino lehen egiteko konpromisoa hartzen duenak. Halaber, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko eskubidea duten pertsonak izanik Udalak egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian.

Aurtengo urtean laguntza-programa honek aldaketa hauek izango ditu:

1.- Emantzipa dirulaguntzaren aipamena sartu da horrek izango duen lehentasuna adieraziz.

2.-Dibortziatu edo bananduen kasuan, 5 urteko gehieneko epea ezarri da alokairu laguntzaren onuradun izateko.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko dirulaguntzak emango dira.

Dirulaguntza lerro honen bidez Azpeitiko udalak, Udal eskuduntzei buruzkoa den apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan toki-administrazioari aurreikusitako eskuduntzak gauzatu nahi ditu, gizarte zerbitzuen planifikazio eta kudeaketari, eta gazteriari dagokionez. Horren harira, Horretarako, Etxebizitzaren



Azpeitiko Udala

legea arautzen duen ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Udalari etxebizitzaren merkatuan eragiteko ematen dion ahalmena kontuan izanik, alokairua sustatzeko laguntzak eman nahi ditu aldi berean kolektibo ahulenei lagunduz.

Kontu-hartzaileak jakinarazi duenez, 2024ko aurrekontuan 50.000,00 €ko diru-izendapena dago eta deialdirako gastuari aurre egiteko behar adinako diru-esleipena egon badago, 1 1100.480.152.30.02 2024 zenbakidun «Alokairu laguntzak» partidan.

2024ko deialdiaren prozedura irekia izango da, eta oinarri bereziak ezarritako baldintzaz gain, Udalaren dirulaguntzen udal-agintarua eta dirulaguntzen legedia izango dira ezargarri. Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 legearen 22.2 artikulua kontuan izanik, deialdi bidez emandako dirulaguntza zuzenak izango dira eskatzaileek denboran aurkeztutako eskaerak kontuan izanik. Udalaren dirulaguntzen udal-agintarauko 16.artikuluarekin bat, alkateak dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartuko ditu.

Oinarri berezietan eta deialdiaren bidez araututa daude: helburua, pertsona onuradunak, alde batera uzteak, diruz laguntzeko gastuak, dirulaguntzak emateko prozedura eta indarrean dagoen legedia.

Eta aipatutako araudi honen baitan, Azpeitiko alkateak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.f artikulua emandako eskumenaz baliatuz, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Udalaren alkatelehendakariak **ERABAKI DUT**:

Lehena.- Etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak eskatu eta jasotzeko 2023ko oinarriak eta deialdia onartzea.

Oinarriak eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren dokumentuak Udalaren web orrian (www.azpeitia.eus) daude ikusgai, dirulaguntzen atalean.

Bigarrena.- Deialdi horri aurre egiteko 2024. ekitaldiko udal aurrekontuan 50.000 euroko gastua baimentzea, honako partidatik: 1 1100.480.152.30.02 2024 zenbakidun «Alokairu laguntzak» partida.

Hirugarrena.- Erabaki honen bitartez onartutako dirulaguntza deialdi irekiaren prozedurari hasiera ematea, eta BDNS, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren web orrian argitaratzea. Udalaren gain izango dira eskaera egiteko behar diren oinarri, deialdi eta gainontzeko formularioak herritarrei jakinaraztea. Horiek guztiak entitatearen web orrian -dirulaguntza programak atalean erantsita egongo dira.



Azpeitiko Udala

Azpeitian, 2024ko ekainaren 5ean
ALKATEAK,



